



## **LEVERADE PLATAFORMAN ESKOLARTEKOEN LIZENTZIA** **INSKRIBATZEKO ARAUDIA**

1 – Bizkaiko Foru Aldundiak eskolartekoen kirol jarduerak garatzeko eta eskolartekoen lizentzia izapidetu eta emateko kompetentziak ditu.

2 – Bizkaiko Foru Aldundiak, hitzarmen bidez, Bizkaiko Igeri Federazioaren esku uzten ditu funtzio publikoak, Igeriketa, Igeriketa Artistikoa, Urpoloa eta Salbamenduko eskola lehiaketak garatzeko, eta Asfedebi-ren esku eskolartekoen lizentziak izapidetzea eta ematea.

3 – DERRIGORREZKOA da klub/ikastetxe batek Leverade plataforman eskolartekoen lizentzia duen kirolari bat inskribatu aurretik, Eskola Kirolan lizentzia onartuta izatea.

4 – Aurreko puntua betetzen ez bada HUTSEGITE LARRIA bezala hartuko da, eta horrek zigor hauek ekarriko ditu:

- A) Kirolariaren baja Leverade plataforman, eta haren emaitza guztien baliogabetzea.
- B) Klub/Ikastetxeari, Bizkaiko Igeri Federazioak eskuordetuta dituen eskolarteko lehiaketetan denboraldi batean zehar ez parte-hartzea.

Bilbon, 2023ko urriaren 11an

Presidentea